

www.noaia.com

# Noaia !!



Aitzaga elkartearen  
aldeko elkarretaratzea




Iker Galarza eta Joseba Usabiagaren arteko  
“Erreleboa” Sutegin





Jar ezazu zure  
publizitatea Noauaren  
Edertu Zaituz Gidan  
☎ 943 86 0021 • [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)



# Lehiaketa

NOAUA! eta Udalaren ekimenez,  
"Erreleboa" antzezlanaren ikusteko aukera  
izango dugu martxoaren 17an,  
Sutegiko auditorioan. Sarrera doanekoa  
izango da. NOAUA! bertan eskura  
daitezke gonbidapenak,  
pertsonei bakoitzeko gehienez lau.  
Hala ere, e-mail bat  
bidaltzen digutenean artean lau gonbidapen  
zozketatuko ditugu. "Erreleboa" ikusi nahi  
dut esaldia bidali elkarte@noaua.com  
helbidera eta martxoaren 11ko zozketan  
hartuko duzu parte.

Bidali e-maila  
[erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com).  
Postaz BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea  
20170 USURBIL (Gipuzkoa).

# + OSASUN GIDA +

<h2>FARMAZIAK</h2> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;"><b>farmazia</b></p> <p style="text-align: center;"><b>ISIDORO ITURRALDE</b></p> <p style="text-align: center;">Homeopatia Formulación magistral</p> <p style="text-align: center;">Burdin 3erria, 1 ☎ 943 86 0021</p> </div>	<h2>ODONTOLOGIA</h2> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;"> Odontologa</p> <p style="text-align: center;"><b>Dra. M<sup>a</sup> Jesús Rubio Muñoz</b></p> <p style="text-align: center;">Euzkara 1erria, 1-1Ere, USURBIL ☎ 943 86 18 55</p> </div>
<h2>MASAJISTAK</h2> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;"><b>UMA</b></p> <p style="text-align: center;"><b>masaje lekua</b></p> <p style="text-align: center;">Lepoko eta bizkarreko minak Kirol eta oinetako masajea</p> <p style="text-align: center;">K/ nagusia, 10-atzekaldea ☎ 659 043 486</p> </div>	<h2>LOGOPEDAK</h2> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;"><b>LOGOPEDA-PEDAGOGA</b></p> <p style="text-align: center;">Ulermen arazoak, Ahozkatzeko zailtasunak: Dislaliak, "rr" Afoniak- Disfoniak, Dislexia, Disglasia... Degluzio atipikoa.</p> <p style="text-align: center;">Konsultaren ordua eskatzeko, deitu: ☎ 635 70 13 74</p> </div>



## Badok Amairu !!

# Joseba Undiano: "Nik dakitenik ez daukat biziorik"

**J**oseba Undiano Txikierdiko etxe batean bizi den hemezortzi urteko gaztea da eta nekazal giroa du gus-tuko. Datorren urtean bukatuko ditu automozio ikasketak, baina mekani-karekin erlazionatutako zerbeitetan aritu nahi badu ere, ez du tailer batean amaitu nahi.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.  
Langostinoak plantxan.

2. OHITURA TXARREN BAT.  
Nik dakitenik ez.

3. ZER GORDETZEN DUZU  
BETI SAKELAN?  
Eskuko telefonoa.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?  
Basurde batean.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?  
Heriotzari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.  
Ez nintzake ausartuko bakarra aipatzera.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...  
Lagunik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.  
Elkarrizketa hau egitea.

9. LIBURU BAT.  
"La vida de homo erectus".

10. FILM BAT.  
"Matrix".



11. LEKU BAT.  
Euskal Herria.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.  
Zaldierreka.

13. URTARO BAT.  
Udara.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

**NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.**

## Aurkibidea

ZUTABEAN, JOSE PIÑAS \_\_\_\_\_ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ **6. OR.**

"ERRELEBOA" ANTZEZLANA \_\_\_\_\_ **8. OR.**

Ernesto Caballeroren "El Retén" obraren moldaketa da "Erreleboa". Egokitze-lan hori Iker Galarza aktoreak egin du. Berak kontatu dizkigu antzezlanaren nondik norakoak.



AZKEN PLENOKO ERABAKIAK \_\_\_\_\_ **10. OR.**

IGANDE HONETAN, ELKARRETARATZEA \_\_\_\_\_ **11. OR.**

ZUMARTEKOAK DONOSTIAN \_\_\_\_\_ **12. OR.**

IZOKIN GAZTEAK ASKATU DITUZTE ORIAN \_\_\_\_\_ **13. OR.**

DENBORAPASA \_\_\_\_\_ **17. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

## Zutabea !



JOSE PIÑAS

## Polizia buruan eta ibili munduan?

**G**oizeko zortzietan, Donostiarako trenean goazenok erdi lo gaude inspektorea azaltzen denean. Altua, bizarduna, aurpegi serioa, gaur ez baina sarritan txapela buruan duena... Pertsonalitate handia. Urretxuko Iparragirre abeslari hura gogorarazten dit.

Niregana hurbildu da eta:

- Egunon. Txartela mesedez.
- (Glubb).

Lasai hitz egiten du, egoera menperatzen duela transmititu nahian, autoritatearen irudia da benetan: intimidatzen gaitu benetan.

Txartela luzatu diot. Eskuetan dauka:

- Ez duzu makinatik pasa. Zergatik?
- Ohiturik ez daukadalako... baina ikus ezazu ordaindu dudala.

- Bai baina begira (eta paretan zintzilik dagoen kartela irakurtzen dit) legeak... lalali lalala... eta multa ... la la la ... (esaten nuen ba Iparragirren antza zuela eta).

- Aja (diot... abestia osatzeko).

Utzi nau bakean eta beste batengana doa, begiradak hara zuzentzen dira orain.

Burua altxa eta ispilu txiki batera begiratzen dut, bere

atzetik kamara bat da, niri begiratzen didana.

Pentsatzen hasi naiz: autoritatearen intimidazioa eta kontrola. Biolentzia gehiegi goizeko zortziak izateko. Hau ez dabil batere ondo.

Trean txartelik gabe sartzen ginenean akordatzen naiz, bertan inspektore batek saltzen zigulako.

Gero txartela leihatilan erosteko agindu ziguten. Gu ohitu ginen, txintxo-txintxo.

Eta orain dela urte batzuk, txartela erosi eta gero, makina batetik pasatzeko agindu ziguten. Baina zergatik? Zergatik fitxatu behar dut lantegi batean egongo banintz bezala? Zergatik kontrolatu behar dut nire burua?

Bidaia ordaindu dut eta txartela daukat demostratze-ko, ez al da nahikoa? Zer gehiago demostratu behar dut?

Lagun batek esan zidan behin: "Sistema honen garai- pen handienetarikoa bakoitzaren buruan polizi bat instalatzea izan da". Hau al da demostratu behar dudana?

Ikastolan, Iparragirre abeslariaren obra guztiaren oinarria askatasun eta errebeldia sentimenduak zirela irakatsi ziguten. Eutsiko diot lezio hari eta ez dut ohitura txarrik hartuko.

Ez naiz ohituko.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

## Ika-mika !

### Martxoak 3 1976/2006

**B**adira 30 urte Espainiako poli-ziak langileen asanblada bat eraso ondoren, bost langile erail eta ehundaka zauritu zituela. Egun haie- tan, gure herrian ere gertaera latzak izaten ari ziren. Michelin enpresan otsailaren 16tik greba mugagabean zeuden langileak, Gasteizko langileen moduan, lan eta bizi baldintza duin batzuen aldeko borrokan buru belarri.

Greba mugagabe hark 100 egun iraungo zituen eta 67 kaleratze eragin, gure herriko historia txikian eta bertako langile mugimendurako mugarri bihurtuz.

Kapitalak orduan langilegoa lan eta bizi baldintza kaxkarretan mantentzen zuen, beren irabaziak biderkatu eta burgesiaren klase nagusitasuna mantentzeko. Beranduago eta beti helburu berberekin, langabezia modu basatian erabili zuen bezala.

Gaur eguneko egoeran, ugazabek, gobernuen eta CCOO eta UGTren laguntzaz, lan harremanen prekarizazioa bultzatzen ari dira. Kapitalen betiko helburuak lortu ahal izateko.

Berriz ere langilegoa gara prekarietate honek dakartzan oinazeak pairatzen ditugunak. Segurtasun eza, bizi

proiektuak aurrera ateratzeko ezegon- kortasuna, lan baldintza gero eta kax- karragoak, honek guztiak eragindako lan istripuak, etab.

30 urte pasa dira, eta borrokatze-ko arrazoiak bertan diraude. Beraz erabili dezagun gaurko eguna atzoko kideak gogoan izateko eta ekin diezaiogun borrokari. Atzo eta gaur langileak borrokan prekarietatearen aurka.

**LABeko Lasarte-Usurbil Herri Batzarra**

Nekane Aramendi, V.Luzuriaga-Usurbil euskara planeko koordinatzailea

## “Iniziatiba Zuzendaritzarena izan da”

**Z**uen euskara planak ibilbide motza izan du baina zein da orain arteko ibilbide horren zure balorazioa?

Nekane Aramendi. Poliki goaz, eta gainera, azkarrago ezin garela joan iruditzen zait. Lan mundua osatzen duten ahozko eta idatzizko komunikazioak eraldatzea urte gutxi batzuetan, ezinezkoa da. Planaren komunikazioa eta motibazioa lortzeko etengabeko lana dugu denok, baita inplikatuena gaudenok ere.

### NEKANE ARAMENDI

“Motibazioa lortzeko etengabe egin behar da lan”

Zergatik erabaki zuen V. Luzuriaga-Usurbilek euskara planari ekitea?

N. A. Fagor Ederlan Taldean gaude eta Ederlan kooperatiban azken 8 urte hauetan martxan dagoen euskara

plana talde osoaren enpresa partaidetuetara zabaltzen ari da. Bestalde, arrazoi naturalak ere badira, langileen berritze bat ematen ari da V. Luzuriaga-Usurbilen. Gazte euskaldun asko sartzen ari da eta inkestaren bidez jasotako informazioak langileon jarrera euskararen erabilera sustatzearen aurrean oso positiboa dela esan digu.

**Zein da enpresako zuzendaritzaren inplikazioa?**

N. A. Plana aurrera eramateko iniziatiba eta azken erabakia Zuzendaritzarena izan da, batez ere Zuzendari Nagusiarena. Euskara batzordean zuzendari nagusia, Ekoizpen eta Giza Kudeaketa-Sistemak arloetakoak eta Enpresa Batzorde eta Kontseilu Sozialeko ordezkariak parte hartzen dute. Azken bi organo horien inplikazioa oso garrantzitsua da, langile guztien ordezkari diren aldetik.

Azken finean, euskara planean sar-



tzeak eta jarritako helburuak lortzeak, satisfakzio bat ekartzen du, eta horrek kolektiboa indartzen du.

**Nola txertatu duzue euskara plana enpresako antolakuntza orokorrean?**

N. A. Enpresako urteroko gestio planean txertatu dugu eta enpresako beste helburuei jarraipen, deskargu eta neurketa egiteko sistema edo metodo berbera aplikatzen diogu Euskara Planeko helburuei.

**Buruntzaldeko lan mundua euskalduntzeko buletinean jasoa (3. alea, 2006ko otsaila).**

[www.emun.com/buruntzaldea/buletina](http://www.emun.com/buruntzaldea/buletina)

**LATAILLADE**    **ITURGINTZA**

**GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**Zendoia**



Kale Nagusia 3b · 943 37 40 71



Kale nagusia, 10  
Telf. 943 37 33 48  
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**txirriStra**

KONTSEJU ZAHARRA 13  
943 300 400



piatxoak  
ogitartekoak  
platea konbinatuak

**TABERNA**



ARRAINDEGIA  
**PELLO**

Puntapax Kalea, 7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. © 943 362 725

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

## Usurbildar kasta Getarian



Pasa den igandean, martxoaren 5ean, herriko gaztetxoaren arteko eskupilota txapelketaren finala jokatu zen Getarian. Bertan, adinaren arabera sailkatutako 5 kategoria ezberdintzen ziren eta guztira 59 mutikok eta neska batek hartu zuten parte txapelketan, baina hori bai, getariarrak ziren guztiak.

Neska-mutil haien artean nire iloba den Urko Gurrutxaga zegoen 7-8 urtekoen kategorian eta beraiena izan zen lehen norgehiagoka. Bi pilotariak oso ongi jolastu bazuten ere, Urkori bere aurkaria gailendu zitzaion eta 22-15 izan zen partidua-ren emaitza. Badirudi Usurbilgo kasta Getariaraino ere heldu dela eta aurreko urtean bezala oraingoan ere finalera iritsi da eta irabazi ez badu ere, ziur pilotari trebea izatera iritsiko dela.

Gai honekin zerikusirik ez badu ere, esan martxoaren lehen astean izan diren haize bolada handiak direla eta Torre Jauregiko inguruetako zuhaitz bat erori dela eta beste zenbait zuhaixka ere kolokan utzi dituela, beraz, izan da nahikoa mugimendu gure etxe inguruan egur guzti horiek ateratzen.

Eta auzoko beste berri batekin emango diot bukaera artikulua honi, izan ere, Goiko-Errotako hiru etxeetako batean lapurrak sartu omen dira eta ez dakit zer lapurtu duten baina badirudi leihotz bat hautsita lortu zutela etxe barrura sartzea eta etxe guztia hankaz gora utzi omen dute. Adi egon beharko dugu auzotarrok beste etxeren batean sartzea bururatzen bazaie.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

## Martxoak 8



Data bat baino gehiago. Gogoratzeko data bat. Gogoratzeko 1908ko martxoaren 8an, ehun eta hogeita bederatzi emakume langile hil zirela New Yorkeko ehun fabrika batean, sutearen eraginez, beraien lan aldarrikapenak egiten ari zirela. Gogoratzekoa ere, gizaldiz gizaldi, milaka emakume, gogor borrokatu direla gizartearen inposaketaren aurka.

Emakume guzti hauei esker, gaurko emakumeok, egoera askoz ere hobegoa dugu. Hala ere, gaur egun ere badago zer aldarrikatua eta zer egina, bai banaka, bai taldeka, gizon eta emakumeen artean egin beharreko lana. Ez da emakumei bakarrik dagokiena. Bakoitzak bere inguruan egin dezakeena.

Data honi lotuta eta urtero bezala, igandean, martxoaren 5ean eta Donostian "Lilatoia" ospatu zen, 5 km-ko lasterketa, eta bertan Usurbilgo emakume batzuk ere parte haru zuten. Denera 600 bat emakume aritu ziren. Hasi aurretik zerua lainoz estalita bazeagoen ere, irteera unean eguzkia ateratu zen eta haizea izan zen nagusi ibilbide guztian, lagun batzuetan eta etsai besteetan. Adin guztietako partehartzaile, maila guztietakoak, batzuei motza egingo zitzairen, beste batzuei berriz luzeegia, baina denek ilusio berdina ibili ziren. Bukatu eta gero, nekatuta eta izerditan bazeuden ere, jada hurrengo urteko "Lilatoian" pentsatzen jarriak ziren.

KALEZAR

MADDI GALBETE

## Troia auzoa

Kaixo NOAUA zaleok! Ikusten duzuen bezala berria nauzue honetan. Lehengoan deitu zidaten idazteko eskatuz eta baiezkota eman nuen. Hasieran zer idatzi ez banekien ere, orain gogotsu aprobeztatu dut idazteko aukera hau.

Izan ere, hemen, Kalezarko txoko ezkutu honetan bizi garenok badugu zenbait gauza salatzen gogoan (txoko ezkutu honetan esaten dudanean Troia auzo txikia darabilkit gogoan). Esaterako, egunero katuz inguratutako dagoen zakarrontzi edo kontenedore bat dago gure etxe parean, eguna iluntzerako zakar puska bat belarretan behera botata edukitzen duena, bai katuengatik eta baita jendearengatik ere, zakarrontzia beterik ikusi eta zakarra kanpoan uzten duena. Noski, belarretan botata zaku hori ez du inork garbitzen, herriko beste lekuetara ez bezala hona ez baita garbitzailerik hurbiltzen. Arazo honi aurkitzen diodan irtenbiderik egokiena beste kontenedore bat jartzea litzateke, berdearen ondoan urdina, horrela zakar gutxiago pilatuko litzateke kontenedore bakoitzean eta gainera birziklatu egingo genuke.

Arazo honetaz gain, beste zenbait gehiago ere baditugu, adibidez: garraio publikoak, karreterako zuladurak e.a.

Uste dut gaurkoz nahikoa idatzi dudala, ea norbaiti hau irakurri eta gauzak aldatzeko gogoan pizten zaion.



ATXEGALDE

IONE EIZMENDI

## Esaera zaharrak

Otsailak buztanez, martxoak bularrez". Otsailak agurtu gaitu, baina ez ezusteko-rik eman gabe. Orain dela hiru urte Egunkariaren itxiera izan genuen eta oraingoan berriro susto ederra. Herriaren erdi-erdian itxi diguten lokalak min handia eman digu herritarroi. Zenbat bider jasan behar ote ditugu horrelako erasoak?

Beste esaera zahar bat, "martxoa gizonena, apirila emazteena". Zergatik ote dio esaerak horrela?

Aste honetan emakume langileon eguna ospatzen dugu; emakume zapaldua, emakume bortxatua, emakume hila, emakume gogorra, emakume tinkoa, emakume xumea, emakume goxoa, emakume alai, haurrak mundura ekartzen dituen. Zer ote litzateke mundua emakumerik gabe? Hala ere, ez dadila izan urtean behin bakarrik ospatzeko. Urte osoan urratsak emanez lanean jarraituko dugu oztipo guztiak gaindituz.

Herrian edo auzoan, hitzaldi, afari edo ekintzarik balego, parte hartu eta ondo pasa dezagula.





SANTUENEA

ALEX TELLO

## Ibaiaren erdian iratzartu



**D**oinu misteriotsuen ibaira urreratzean, argi kolpeak ilunean jaso ninduen...

Belzturan flash-a ahuldu ahala, haren aurretiko irudiak ber-ikusi ezinik eta, aurrerantzean, hurrengoak hutsak edo koloregabeak izango balira?

Leku hau zer den ez dakidalarik (izarrik gabeko gaua, iraganean hildakoen itzal ahaztuen zokoa, ezerezaren amildegia?), zer ez den jakin badakit. Une ezeroso honetan denbora ere hutsean da... Adiskideren batek estutzea eskertuko nuke, baina gorputza sentitu ezinik, arinean hutsean dut...

Zoriz, ohiko baldintzek hemen lekurik ez dute, aske ekiteko ezinbestekoa dena, zinez. Hortaz, baikor bakartasun antzuan eroso aurkitzera hel naiteke? Ero. Ero ez, oso ero. Ero oso...

Ni-a nirekin inoiz baino nireagoa nirezat... baina... bide, helbide eta baliabide ezean, muga eta jomuga, gosea, mingaina, begia, gorputza, irudia eta izenik gabe ez dago izaterik. Inon inor (gehiago) ez bada, ez dago egoterik. Iluneko giro eroan itoko naizela sumatzen dut.

Zerk itxi nau merezi ez duen pentsamenduaren tunelean? Hau guztia argitzeko, eguzkiaren argia hOria beharrezkoa izango da. Kanpoan gertatuko diren ekaitzen astinduak ekidi ezinezkoak izango direla jakinik, geltoki hau uztea erabaki dut. Bizitzaren errealitate gordina ukatu ezean eta ahal bezain aske bizitzen jarraitzeko... Santuenera itzuliko naiz.

Halako batean, eguzki izpien ferekaz eta buruko min arin batekin, zentzuak pizturik ibaiaren erdian iratzartu nintzen.

URDAIAGA

SARA LAZKANO

## Festetan pentsatzen



**I**nauteriak ere pasa dira, ia ohartu gabe, jaiegun gehienak bezala, eta ez dago aurrera begiratu besterik... Eta aurrera begira, zain ikusten ditugun festetan pentsatzen dugu, soilik, egunerokotasuna apurtzeko gogoz.

Laster iritsiko dira Andatza eguna, edota Sagardo eguna ere, eta San Joanekin batera, herriko festen jarraipena ere iritsiko da, San Praxkuekin amaituz. Eta tarte honetan, abuztuaren hasieran hain zuzen, iritsiko dira gure auzoaren egun handiak ere. Eta horretan hasi gara, berriz ere, azken aste hauetan. Izango ditugu hemendik aurrera nahiko buru-hauste, gauetako kontzertu eta dantzaldiak direla batetik, bertsolariak, haurrentzako jokoak, edariak, eta abar luze bat. Eguraldiaz pentsatuko dugu, egunak iristen doazen heinean maizago. Eta uztailan sartzen goazen bezala, eta herriko festak amaitzen, tripazorriak izango ditugu, dena lotuta ez dagoenaren tentsazio geldiezinaz... Azkenean bost egunak, abuztuaren 3tik 7ra doazen egun urri horiek ziztu bizian pasatzeko... baina merezi du.

Azken festak ederrak izan ziren, gauza ezberdinak egiten saiatu ginen, batzuek ongi atera ziren, eta beste batzuk ez, baina probatu genituen sikiera. Laguntza handia ere jaso genuen pasa den urtean, guztiei eskerrak, eta laster gaituzuela ate joka berriz ere, laguntza eske. Eta zuei, festen alde errifak saltzera etortzen zaizkizuenen, gogoratu hiru egunen atzean hilabete askotako lana dagoela eta udan auzoko plazan ikusiko garela.

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

## Udari begira

**I**epa denoi! Karnabalen ostean, hemen naiz berriro ere Aginaga aldeko berri emateko. Karnabalak igaro diren honetan, aipatu behar, hemengo eskolako haurrek ere egin zutela euren jaialditxoak. Otsailaren 24an, abestuz eta dantzatuz, saio polita eskaini zuten eta arratsaldea ongi amaitzeko, eskolako txikienek egindako bizkotxoak izan genuen dastagai.

Inauteriak alde batera utzita, gaurkoan proposamen batekin natorkizue. Proposamen hau batik bat, haurrak dituzten gurasoei zuzentzen diet eta honetan datza: udan, hilabetez edo, Aginagan haurrentzat txokoak antolatzea.

Txoko hauek, Usurbilgo beste auzo batzuetan egiten direla kontuan hartuta, Aginagan zergaitik ez?

Nire iritzi apalean, txoko hauek bizitasun handia emango liokete gure herriari, eta bertako haurren harremana asko sendotu eta indartzea ekarriko luke. Baina hau antolatzen hasi aurretik, gurasoei bilera bat egitea ezinbestekoa da, izan ere, lau haurrek bakarrik hartuko balute parte, ez luke mereziko. Hau dela eta **martxoaren 15ean arratsaldeko 17:00etan** bilera bat egingo da apaiz etxean, informatzeko.

Besterik gabe, hortxe duzue gonbidapena luzatuta eta zuen zai gelditzen gara.



ZUBIETA

XABIER ARREGI

## Herri-Batzarra kolokan?

**G**ogaituta daude gure alkate eta herri-ordezkariek. Hainbeste ahalegin eta buruhauste, hainbeste lan, zertarako? Non ikusten da ahalegin horren emaitza? Alferrik baita, Zubietari dagozkionak bi udalen esku daude, oraingo. Eta bi udalek, nola bataz hala besteak, ez dute errespeturik zubietarrok. Bagenekien Herri-Batzarraren eskumenak urriak zirela. Arautegia begiratu besterik ez dago horretaz konturatzeko. Baina, arau horien baitan dago, esate baterako, ez dela Zubietari eragiten dion erabakirik hartuko zubietarren iritzia kontuan hartu gabe. To! Idatzi bai, bete ez, ordea.

Ez gaituzte aintzat hartzen, eta halaxe gabilta gero: ez kale-gar-biketarik, ez txukunketarik, obra txikiak egiteko oztopoa oztopoen gaineratik, erabaki potoloen jakinarazpenik ez (gogorra da gero prentsaren bidez enteratu beharra!), geronek landutako proiektuei kasurik ez. Horren aurrean, Herri-Batzarrak iraungo badu, behar-beharrezkoa da ahalmen handiagoak aitortzea eta zubietarren esku uztea gure herria antolatzeko tresnak. Bestela, ez oraingoek soilik, hurrena datozen herri-ordezkariek ere etsi-etsi eginda bukatuko dute.

Otsailaren 27an izandako bileran horixe esan omen zioten gure ordezkariek bi udaletatik etorritakoei. Ez dakigu kasurik egingo duten, baina egiten ez badute zer edo zer pentsatzen hasi beharko dugu.



## Iker Galarza "Erreleboa" antzezlaneko aktorea "Guk uste baino harrera hobea izan du"

**M**artxoaren 17an iritsiko da Sutegira "Erreleboa" antzezlan, baina zorioneko eguna iritsi aurretik, NOAUA!n zer-bait gehiago jakin nahi izan dugu. Izatez Ernesto Caballeroren "El Retén" obraren moldaketa da "Erreleboa", eta moldatze lan hori Iker Galarza aktoreak egin du. Berak eman dizkigu obra honen inguruko xehetasun ugari.

NOAUA! Zertan datza "Erreleboa"?

**Iker Galarza.** Obra txukun bat, ordu eta laurden pasatxokoa, bi lagun, umore pixka bat, istorio sinple bat, jarraitzeko erraza eta tarte atsegin bat pasatzeko ezin hobea.

**N.** Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan lehenengo saria irabazi duzue obrarekin. Zer suposatzen du horrek?

**I. G.** Sariak berak baino gehiago agian estreinaldian saria eman izanak du garrantzia. Obra batekin ekitaldi sorta bat egin baduzu, obra txukuna izango da, errodaje handikoa, eta txapelketetan saritutakoak normalean hala izaten dira. Baina guri ezustekoa eman ziguna lehenengoan joan eta hala tokatzea izan zen. Jendeari gustatu egin zitzaion. Askotan estreinaldiak gauza asko zuzentzeko izaten dira, gauza asko berriz ere txukuntzeko, berrikusteko, jendeari zer gustatu zaio... Lehenengoan sari bat ematen badizute, esaten duzu: "ez gaituk hain gaizki aritu!". Beste batzuk aurre-estreinaldiak ere egiten dituzte, baina guk ordura arte lagunak aurrean ere ez genuen egin. Biok bakarrik hor aritu ginen eta inork ez gintuen ikusi. Orduan esan genuen: "ondo ariko gaituk, bide honetatik segitu beharko diagu". Zertxobait agian aldatu da, ukitu batzuk eman dizkiogu. Gur ere erosoago gabil-tza orain.

**N.** Testua euskarara egokitu duzu eta baita euskal mundura ere. Zailtasunik eman al dizu obra gure ikuspuntura egokitzeak?

**I. G.** Zailtasunik hasieran, gehien bat



IKER GALARZA BERAK EUSKARATU DU ANTZEZLANA.

geurera egokitu behar zela pentsatzean eta hori nola egin erabakitzean. Bi pertsonaiak euskaldunak izango ote ziren, bat erdalduna utziko ote genuen... Obra euskaraz izatea nahi genuen, eta ez nuen nahi euskalduna azentu galegoarekin edo horrelako gauza arrarorik. Buruari buelta batzuk ematea izan zen. Gero jada planteatzerakoan bi euskaldun izango zirela eta hantxe topatuko zirela, horixe, bakoitzak bereari begiratu behar zion. Obra originalean agertzen diren oinarriak eta egoerak mantendu ditugu, eta hortik aurrera bururatu zaiguna. Gauza dezente aldatu da, egia esan. Baina ez pentsa aparteko lanik eman didanik.

### IKER GALARZA AKTOREA

"Antzezlan honekin guk uste baino lan gehiago atera zaigu, oso gustura gaude"

**N.** Nolako harrera izan du herrietan?

**I. G.** Ona. Konturatu gara euskara maila kaskarragoa duten herrietan, Erandiora joan ginenean, adibidez, jende

gutxiago joaten dela, hiruzpalau koadri-la, eta haiantzat egin behar dugula. Konturatu izan gara mantoago hitz egin beharrez ere. Eta alderantziz, lehengo larunbatean Ataunen izan ginen eta alde ederra! Pentsatzen dut Usurbilen ere antzera izango dela. Usurbilen eta Ataunen, adibidez, lasaiago egiten dugu, etxean bezala. Era berean, Barakaldon izan ginenean ere, han euskaldunak badaude, bizkaitarrak direnak, eta esan ziguten ederki ulertu gintuztela, ondo pasa zutela, eta hain euskaldunak ez direnek ere berdin esan ziguten.

**N.** Bi antzezle zarete 75 minutuko obra batean. Erraza al da hori eramatea?

**I. G.** Guk beldurra bagenuen goraberak izango ote zituen. Lehen esan bezala obra sinplea da baina era berean bizia eta kolore askokoa. Baditu biak elkarrekin gauden momentuak, bakoitza bakarka, pausa txikiak, bere barre momentuak... Barrea algaraka, lehertu beharrean egiten denik ez dut esango, denbora luzez irribarre zabalaz egotekoa dela bai, ordea. Istorioa berez polita denez erraz jarraitzen da. Askotan bost aktoreekin obra bat gehiago konplikatzten da eta zailagoa da hariari eustea. Jendeak esaten digu: "hori meritua, bi lagun bakarrik hor aritzea!"

Biren artean, aktoreetako bat pixka bat apalago edo makalago badago ere, besteak eutsiko dio eta uste dut askoz ere errazagoa dela aurrera ateratzen.

**N.** Beste proiekturik ba al duzue buruan?

**I. G.** Ez, momentuz guk pailazoekin jarraitzen dugu, infantilak egiten ditugu, "Poxpolo eta Mokolo eta konpainia"-rekin. Erreleboarekin guk uste genuena baino lan gehiago ateratzen ari zaigu, guk pailazoarekin uztartu nahi genuen zer-bait zen, baina harrera uste baino hobea izan duenez... Datorren asteburuan pailazoak ditugu, gauean Erreleboa...



## “Erreleboa”, komedia kutsuko antzezlan

**1** 985 urteko negua. Algezirasen bi lagun soldaduskan. Ez, bi ezagun. Edo lagun egingo diren bi ezezagun. Edo elkar ezagutzeko aukerarik ere izango ez duten bi lagun. Azken finean bi euskaldun etxetik kanpo. Bata soldaduska amaitzekotan. Bestea hasi berritan. Esperientzia, inozentzia, adiskidetasuna, inbidia, borroka, leialtasuna... Denak batera, denak gau batean. Bata bestearen kontra eta bata bestearekin bat. Esperientziak konpartitzeko, bizipenak eta biziminak kontatzeko gau aparta. Agustin eta Joxe soldaduskaren esklabo. Bizitzaren morroi. Jaioterriaren karga. Etxekoen nostalgia. Batzutan bizi, bestetan motel, hau da Algezirasen gau bat. Gau hotz bateko erreleboa.



“ERRELEBOA”, SOLDADUSKAN DIREN BI EUSKALDUNEN PASADIZOAK.

## Martxoaren 14an hasiko da Jubilatuaren Astea 06

**H**itzaldiak izango dira Gure Pakea elkarteak antolatu duen Jubilatuaren Asteako osagai nagusiak. Maila handiko profesionalak zahartzaroarekin loturiko gaiak landuko dituzte. San Jose egunean egingo den bazkariarekin amaituko da astea. Gure Pakeak antolatu badu ere, gainontzeko egoitzetako jubilatuerei ere parte hartzeko deia egin zaie.

**Martxoak 14, asteartea**  
“Gizon eta emakumeak, berdin zahartzen al dira? Zahartzaro osasuntsua”. Pedro Bilbatua Flores, psikologian lizentziatua, gerontologoa.

**Martxoak 15, asteazkena**  
“Alzheimer gaixotasuna”. Amagoia Muruamendiaraz, gerontologoa.

**Martxoak 16, osteguna**  
“Artrosis eta Osteoporosis”. Alicia Magdalena Lope, medikuntzan lizentziatua.

**Hitzaldi-solasaldi hauek guztiak**  
Sutegin egingo dira, arratsaldeko 17:30ean hasita.

**Martxoaren 19an bazkaria**  
11:30ean, hildako jubilatuaren omenez Meza Nagusia parrokan.

14:30ean Saizar sagardotegian bazkaria. Gure Pakeako bazkideak ez ezik, gainontzeko jubilatuak ere joan daitezke bazkarira. Bazkariaren prezioa: 28 euro. Izen ematea eta txartelak jasotzea Gure Pakeako bulegoan, 10:00etatik 13:00era, martxoaren 16a bitartean.

Antolatzailea: Gure Pakea.  
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

### Film laburren proiektzioa martxoaren 16a arte atzeratu da

**M**artxoaren 9rako iragarri genuen film laburren proiektzioa. Baina egun horretarako deitu den greba dela eta, martxoaren 16ra atzeratzea erabaki da. Eragozpen honen ondorioz sarrerako dirua jaso nahi duenak NOAUA!ko egoitzatik pasa dadila. Gainontzean, martxoaren 9ko data daraman sarrera baliogarri izango da martxoaren 16ko saiorako.

#### Lan interesgarriak

Martxoaren 16an 'Txotx', 'Sarabe', 'Haragia', 'Hauspo soinua' eta '40 ezetz' film laburrak ikus ahal izango ditugu Sutegin. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da emanaldia.

Sarrerak, 3 eurotan salgai NOAUA!ko egoitzan eta Txirristran (baita martxoaren 16an proiektzioaren egunean bertan ere, Sutegiko takilan).

## Zinegotzi-kargua hartu du Iñaki Illarramendik

**O**tsailaren 28ko ohiko udalbatza plenoan hartu zuen zinegotzi kargua Iñaki Illarramendik. Pedro Ibarrek, EAJ-PNVko zerrenda buru izandakoak, abenduan utzitako hutsunea betetzera dator kargu-hartze hau. Udalbatza pleno horretan ere, Energiaren Euskal Erakundearekin izenpetu beharreko hitzarmen orokorra onartu zen.

Otsaileko ohiko udalbatza plenoan, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan Txara eremua planifikatu eta garatzeko hitzarmen urbanistikoari onospena eman zitzaion.

Hezkuntza Batzorde Informatzailearen sorreraren berri ere eman zen.

Hala nola, batzorde informatzaileen osaketa berria iragarri zen.

Gainera, kontratazio-mahai iraunkorra eratzeko proposamena aztertu zen.

### Udalez kanpoko ordezkartzaren berrantolaketa

EA eta EAJ-PNV alderdien arteko udal akordioa dela eta, udalez kanpoko erakundeen ordezkartza berrantolatu egin da. Hori ere otsaileko plenoan landu zen.

Mozioen artean, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 30. urteurrenari buruzko bi mozio aurkeztu ziren. Bat, udal gobernuak aurkeztu zuena. Bestea, PPK aurkeztutakoa.



EZKERREAN IÑAKI ILLARRAMENDI, EAJ-PNVKO ZINEGOTZI BERRIA.

Alderdi Popularrak ere, menpekotasun egoeran dauden pertsoneri babesa eta arreta eskaintzeko mozioa aurkeztu zuen.

## Sahararen aldeko mozioa onartu zen

**O**tsailaren 27an Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren urteurrena ospatu zen. Sahararren inguruan gertatutakoak aztertuta eta dagoeneko hiru hamarkadaz luzatu den gatazkak irtenbide baketsua eta behin betikoa behar duela aintzat hartuta, udalbatza plenoak saharar herriaren aldeko mozioa onartu zuen otsailaren ohiko udalbatza plenoan.

Usurbilgo udalak berretsi egin nahi izan du saharar herriak askatasunaren eta autodeterminazioaren alde duen borrokaren aldeko konpromisoa.

Udalbatza plenoak onartu duen mozioaren bidez, Fronte Polisarioa zoriondu dute udal ordezkariak, "Baker II Planaren bidez (Mendebaldeko Saharako Herriaren Autodeterminaziorako Bake Plana) irtenbide bidezkoa, baketsua, demokratikoa eta egonkorra lortzearen aldeko konpromisoa hartu duelako".

Era berean, Usurbilgo udalak zera eskatu nahi die Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluari, Europako Batasunari eta bertako gober-

nuei ere: "eskuan dituzten baliabide demokratiko guztiak baliatuz, Marokoko gobernuari behar den adina presio egin diezaiotela Mendebaldeko Saharako Herriaren Autodeterminaziorako Bake Plana onar dezan, Fronte Polisarioak egin duen bezala, gatazkaren irtenbide baketsua eta behin betikoa lortzeko".

Espainiako gobernuari, berriz, lan eraginkorragoa egin dezala, NBEren eta EBren baitan, saharar gatazkarentzat irtenbide azkarra, bidezkoa eta iraunkorra lortzeko.

Usurbilen onartu den mozio honek salatu nahi du "Marokok hartutako lurraldeetan saharar biztanleen giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak behin eta berriz urratzen direla. Saharar preso politiko guztiak berehala askatzeko eskatzen dugu, baita gaur egun desagertuta dauden pertsonak non dauden argitzeko ere".

Usurbilgo udalak zoriondu egin nahi ditu Saharar preso politikoak, eta aintzakotzat hartu Mendebaldeko Saharako herritarren giza eskubideen eta oinarritzko askatasunaren alde egin dako borrokaren balioa.



OTSAILAREN 27AN, SAHARAR BANDERA ESKEGI ZEN UDALETXEKO BALKOIAN.

Europako gobernuari, eta bereziki Espainiako gobernuari eta autonomia-erkidegoetakoari, indar bereziak bideratzeko eskatu die Usurbilgo udalak, "errefuxiatu sahararrak jasaten ari diren elikagai krisi izugarriari aurre egiteko".

Usurbilgo udalak eskaera egin die nazioarteko erakunde eskudunei, eska diezaiotela Marokoko gobernuari eta tartean egon daitezkeen enpresei Saharako mendebaldeko baliabide naturalak bidegabeki miatzeari eta ustiatzeari uzteko. "Izan ere, saharar herria da baliabide horien jabe bakarra, eta hari dagokio baliabide horien kontrola".



# Aitzagaren itxiera salatzeke elkarretaratzea egingo da martxoaren 12an

**I**txierak Aitzaga elkarteko bazkideak utzi ditu kalean. Herriko dinamikan ere, nabarmendu da itxiera. Bereziki, elkardez baliatzen ziren herritar zein taldeen artean. Hilabete pasa denean, Aitzagako kideek Grande-Marlaskaren agindua salatzeke elkarretaratzea deitu dute. Martxoaren 12an, eguerdiko 12:00etan abiatuko da manifestazioa.

Aitzaga elkartekoek dioten bezalaxe, azken egunotan zorigaiztoko oihartzuna izan dute Usurbilgo herriak eta Aitzaga elkarteak berak. "Beste behin ere, Madrilgo Auzitegi Nazionaletik emandako agindu bati jarraituz, herriaren erakuntzarako sortu eta garatutako proiektu bat, Estatu indarraren arrazoiak itxi dute. Era berean hiru usurbildar Madrilen deklaratzera behartuak izan dira", hala dio Aitzaga elkarteak igorri digun idatziak.

Herriko elkarte honek gogora ekarri nahi du euren egoitza ekitaldi eta ekimen ugariaren atarpe izan dela: "Ehunka izan dira Aitzaga elkartearen babesean herrian burututako ekimenak".

## Euskal kulturaren alde

Euskal kulturaren eta hizkuntzaren defentsa izan dira besteak beste, Aitzaga elkartearen ikurra. Artisau azokak, pilota txapelketak, sukaldaritza ikastaroak, jaien antolaketa...

1991 urtean sortu zenetik hona, Usurbilgo herri dinamikan lan garrantzitsua egin du Aitzagak.

Dena den, Aitzagakoek kontestu orokor batean kokatzen dute itxiera: "espainiar proiektua inposatu nahi dutenentzat arriskutsua. Hori dela medio, beste behin ere Grande-Marlaska bezalako epaileak era-



EGOITZA ITXI EGIN DIETEN ARREN, ELKARTEKOAK LANEAN JARRAITZEKO ASMO SENDOA DUTE.

biltzen dira, Euskal Herriak Euskal Herriarentzat sortutako bitartekoak zapuzten saiatzeko".

## Aurrera egiteko asmo sendoa

Itxieraren aurrean, herritarren nahiz herriko talde askoren atxikimendua jaso dute Aitzaga elkarteko kideek. Baina atxikimenduetatik haratago, elkarteak aurrera egiteko asmo sendoa azaldu du.

## Ostalaritza Elkartearen oharra

Otsailaren 11n Guardia Zibilak itxi zuen Aitzaga tabernak Aitzaga elkartearekin zerikusirik ez duela adierazi berri du Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak. Xabier Zabaletak kudeatzen duen Aitzaga tabernak aldameneko elkartearen egiten diren ekintzekin harremanik ez duela jakinarazi du.

## Gainerako taldeen atxikimendua biltzen hasi dira

**M**artxoaren 4an, herriko hainbat talde eta elkarte Sutegiko auditorioan bildu ziren. Aitzaga elkarteak berak egin zuen deialdia. Martxoaren 12an egingo den elkarretaratzean parte hartzeko deia luzatu zitzaieen bertaratu zirenei eta baita gainerako taldeei ere.

Herriko talde eta elkarteek igorri zaien gutunaren bidez, Aitzaga elkarteak itxi izana ozenki salatzeke deia egiten da. Bide batez, Aitzaga elkarteko kideei elkartasuna adierazteko eskaera, bereziki Madrilen deklaratzera deituak izan ziren Koldo Lizaso, Arantxa Manterola eta Jexus Mari Errekondori.

Horretaz gain, "eskubide zibil eta politikoen defentsa egitearekin batera, Aitzaga bezalako herri proiektuen kriminalizazioarekin inora iristerik ez dagoela" aldarrikatzea eskatu die Aitzaga elkarteak.

Azkenik, herritarrei eta herriko taldeei "protesta egiteko antolatu diren mobilizazio eta ekimenetan parte hartzea" deitu zaie. Lehen hitzordua, martxoaren 12ko elkarretaratzea.

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

**Obaba kalea 29 · ASTEASU**  
© 943 69 68 52 · 620 800 186

**BORDATXO**  
*edaritegia*

**PINTXO BEREZIAK**

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

ZIBIALURRENEA LISURBIL

ileapaindegi

943361951

## Donostiako Txistulari Bandarekin joko dute Zumarteko bi ikaslek

**M**artxoaren 12an, igande, Donostiako Txistulari Bandak eskainiko duen kontzertua berezia izango da. Zumarte Musika Eskolako bi ikasle arituko baitira bakarleri gisa: Aitor Pagola eta Salvatore Arruti. Donostiako Alde Zaharretik erdigunerainoko dianan hartuko dute parte. Eta baita segidan Konstituzio Plazan egingo den jaialdian ere.

Goizeko 9:00etako dianan, Donostiako Alde Zaharretik hasi eta erdiguneraino doazen kaleetan barrena, bi pieza hauek joko dituzte: "Astotxoa" (J. I. Ansorena) eta "Peru" (J. I. Ansorena).

Eguerdiko 12:15ean, aldiz, kontzertua eskainiko dute Konstituzio Plazan.

Zumarte Musika Eskolako Aitor Pagola txistuko ikaslea bakarleri gisa



arituko da eta txistulari banda laguntzaile modura izango du honako obretan:

"Plentzia", kontrapasa (Santos Intxausti / J. I. Ansorena).

"-Buztan txoria", fandango / arinarina (J. I. Ansorena).

Zumarteko Salvatore Arrutik berriz abesti hau eskainiko du:

"Fistuka", herrikoia (J. I. Ansorena, moldaketa).

Ondoren Lasarte-Oriako ikasleekin batera, Aita H. Olazaranen "Gora" eta "Baztan" obrak joko dituzte.

## Martxoaren 13an hasiko da DYAk antolatatu duen ikastaroa

**M**artxoaren 13an hasi eta martxoaren 31n amaituko da sorosle eta lehen sorospen ikastaroa. Ikastaroaren iraupena hiru astekoa izango da. Arratsaldeko ordutegia izango du ikastaroak: 19:30etik 21:30era, astelehenetik ostiralera. Ikastaroa Udarregi ikastolan egingo da eta ikasgaiak euskaraz eskainiko dira.

Herritar guztiei irekita dagoenez, edonork har dezake parte. Matrikularen prezioa 75 eurokoa da.

### Ikastaro lagungarria

Ez da beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea. Egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei aurre egiteko funtsezkoa da era honetako ikastaroa egitea. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erredurak...

## Arbasoen aztarnak geure paisaian

**L**ehengo astean, Euskal Herriko paisaiaren garapenaren inguruko hitzaldia eskaini zuen Jakoba Errekondok Sutegiko auditorioan. Nafartarrak Kultur Taldeak antolatutako hitzaldiak bi hizlariren ahotsa izan ohi du, baina gorabehera batzuen ondorioz Asier Galdosek ezin izan zuen agertu.

Etxeko giroan aurkeztu zuen gaia Jakobak, baita modu bizi eta erakargarrian azaldu ere Euskal Herriko paisaien iragana, oraina eta geroa. Paleolitikotik hasita gaur arteko analisisia egin zuen geure lurren inguruan, horretarako Euskal Herriko paisaia zoragarrien argazkiak erakutsiz. Bitxikeria bat: Usurbilen dago Pirinioetatik mendebaldera urrunen dagoen cromlecha.



JAKOBA ERREKONDOK SUTEGIKO AUDITORIOAN ESKAINI ZUEN HITZALDIA.



## Foru Aldundiak 3.700 izokin gazte askatu ditu Oria eta Urumea ibaietan

**H**ilaren 3an, 3.700 izokin gazte askatu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak Urumea eta Oria ibaietan. Izokin horiek Irungo arrain haztegi batean hazi dira. Urtebete baino gehiago egin dute bertan, gutxi gorabehera 12 zm luze egin arte.

Maiatz edo ekain aldera izokin kumeak askatu ohi dira, 5 zm-koak gutxi gorabehera; eta otsail eta martxo aldera izokin gazteak, 12 zm-koak.

Izokin horiek Irunen, Bidasoako

Ehiztari eta Arrantzaleen Elkartearen arrain haztegiak hazi dira 2005 urtean. Urtebete baino gehiago iraun dute bertan, gutxi gorabehera 12 zm luze egin arte hain zuzen, eta orain prest daude itsasoratu aurreko aldaketa fisiologikoak egiteko.

### Itsasotik Oriara itzultzeko esperantzarekin askatu dira

Izokin horiek urte bat edo bi bizitzen dira itsasoan eta 3-7 kilo pisatzen iristen dira, itsasoan egindako denboraren arabera. Ondoren, Oria ibaira itzuliko dira, ibaian gora egingo dute ugaltzeko eta horrela amaituko da beren bizi-zikloa.



LASARTE-ORIAN ASKATU DITUZTE  
IZOKIN GAZTEAK.

Oria ibaiaren behealdean, Lasarte-Orian askatu dituzte, horrela izokinak ez dute itsasoratzeko bide luzea egin behar eta jaitsieran aurki ditzaketen arriskuak saihestuko dituzte.

## Udarregi ikastolako ikasleak, Michelingo futbol zelaian

**A**urreko larunbatean, martxoaren 4an, Lasarte-Oriako Michelin futbol zelaian partida ikusgarria jokatu zen. Batetik, Udarregi ikastolako lehen hezkuntzako 6. mailakoak; bestetik, 5. mailako ikasleak. Norgehiagoka honetan, handienak izan ziren irabazleak.

Aldameneko argazkian dituzue 5. mailako ikasleak. Animo mutilak!



IRUDIAN, BOSTGARREN MAILAKO IKASLEAK.

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

### Denborapasak !

	* IZENA		Sexu ar		Ezizenak		Xume		Katu ar
	Asiako estatua		Behar baino geroago		N birritan		3,141596...		
							Suari dariona		
	Ikasitako jokaerak								
	Taldea								
* DEITURA		Harrapa ezazu			Harizko ehun sarria				
Agerpena		Moztuak			Musika nota				
								Kontso-nantea	
								Ukatzeko	
Gutziz larritu			Nitro- genoa		Azti ezaguna		Nork atzizkia		
Hizpide, esames			Iodoa		Infin., ekarri		Jatorri atzizkia		
						48 ordu barru			
						Barazki hostotsua			
Nire			Izana					Kontso-nantea	
Arloa			Euskal alderdia					4. eta 1. bokalak	
				XI. hila					
				Bokala					
Amaierak							Nor atzizkia		

### ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaia.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" ... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

**Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.**

### Bazkide egin zaitez!

**Noaia!!**

36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_  
 E-posta: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.



## Ahalik eta sasoi puntu onena hartu nahian

**T**xirrindulari denboraldia hasi berria da eta Euskaltel Euskadi taldeko Joseba eta Haimar Zubeldia herriko txirrindulariak lanean dira dagoeneko. Haimarrek igandean amaituko den Paris-Niza lasterketan egin du aurtengo debuta eta Josebak, berriz, Mallorcako itzulian hasi ondoren Murtziakoa bukatu berria du. Berarekin izan zen aurten autoko zuzendari lanak beteko dituen Xabier Carbayedare ere.

Joseba Zubeldiak profesional mailan bosgarren denboraldia du aurtengoa. Mallorcako itzulian egin zuen debuta eta ilusio handiarekin dago. Neguan asko entrenatu du, ez du arazorik izan eta Murtziako Itzulian 29. postua eskuratu bazuen ere, sentsazio onekin zen lasterketa amaitu eta hurrengo egunean: “Mallorcan hasi nuen denboraldia eta Murtziakoa zen biga-rena. Aurrean ibiltzeko puntutxo bat falta zait oraindik, baina itzulitik itzulira hobeto sentitu naiz eta hurrengo lasterketan aurrean ibiltzeko moduan izango naizela uste dut”.

Izan ere, iazko denboraldia ahaztu eta aurrean ibiltzeko asmoarekin da herriko txirrindularia. Duela bi urte “Estrella de Besseges” lasterketan 3. postua eskuratu zuen eta orduko sasoi puntuan ibili nahi du aurten ere. “Duela bi urteko

denboraldia nahikoa ona izan zen niretzat, baina iazkoa ahazteko modukoa. Gogo handiarekin nengoen baina denboraldi oso txarra egin nuen. Hasieran forma hartzen asko kosta zitzaidan eta gero denboraldi erdian erorikoa izan eta pelbisa apurtu nuen”. Orduz geroztik lasterketetan parte hartu gabea zen Joseba eta hasierako bi lasterketen ondoren duela bi urteko denboraldia hobetzeko asmoa duela garbi utzi zigun.

### JOSEBA ZUBELDIA

“Garaipenik lortu ez badugu ere, taldea ondo ari da. Igor Gonzalez de Galdeanok konfiantza eman digu”

Gaztela eta Leongo itzulia izango du hurrengo lasterketa eta hiru klasika handi ere egingo ditu hasiera batean. “Tour de Flandes, Gante-Wevelgem eta Paris-Roubaix klasiketan izango naiz eta gero hiru asteko atsedena izango dut; ondoren beste ziklo batekin hasteko”.

Itzuli handiei dagokionez, hasiera batean irailean izango den Espainiako Itzulian egon daiteke, “baina Igor Gonzalez de Galdeano zuzendari teknikoak esan dit beharraren arabera



JOSEBA ZUBELDIK ONDO HASI DU DENBORALDI BERRIA.

Giroa edo Tourra egin dezakedala”.

Zuzendari tekniko berriarekin gustura omen daude. “Aldaketa baten beharra ikusten genuen eta Igorrek guztioi konfiantza eman digu. Bakoitzari guregandik zer espero duen argi utzi dio eta orokorrean gustura gaude. Hori nabarmentzen ari da lasterketetan eta oraindik garaipenik lortu ez badugu ere taldea ondo ari da. Uste dut laster irabaziko dugula lasterketaren bat”.

JOSU ARANBERRI

### Trinketean oso ondo herriko pilotariak

**A**ndatzpe Peña Pagolako pilotariak eskuz binaka Trinketeko Gipuzkoako Kluben arteko txapelketako ligaxkak hirugarren partida jokatu dute larunbatean. Adur Urkia eta Mikel Landak Hernani1 taldearen aurka jokatu dute 15.30ean Donostiako Gaskan. Bikote honek orain arte jokatu dute bi norgehiagokak irabazi ditu. Bestalde, Udarregi ikastolako Iñaki Irazusta, Julen Berradre eta Iñigo Ibargoienek alebin mailako Eskola Arteko Pilota Txapelketako bailarako kanporaketan garaipena lortu zuten.

### Liderrari irabazita gustura jubenilak

**U**rsbil Futbol Taldeko 2. jubenil mailako taldeak bigarren itzulari ekingo dio asteburu honetan. Herriko jokalariek gazteek Martutene taldearen aurka jokatu dute Zubietan. Igoera fase honetan lehenengo garaipena lortu ondoren gogo biziz izango da Urtzi Izagirreraren taldea. Larunbatean Alde Zaharra liderra 1-0 hartu zuten mendean. Eneko Golderosek sartu zuen gola eta Alain Arrillaga atezainak bi penalti jaurtiketa gelditu zituen. Errejonial mailako taldeak ere Zubietan jokatu du Danenaren aurka.

### Garrantzia handiko eskubaloia partida

**J**ose Lorezok zuzentzen duen jubenil mutilen taldeak Gipuzkoako Txapelketa izango du jokoan asteburu honetan Arrasaten jokatu duen neurketan. Orain arte jokatu dute 16 partidak irabazi dituzte, baina aurrean izango duten Gatz Museoa Jakion taldeak ere usurbildarren aurka jokatu dute partida ez beste guztiak irabazi ditu. Orduan, herriko taldea 32-30 nagusitu zen Urnietan jokatu zuten partidaren. Hala ere, entrenatzaileak esan digunez partida amaitzeko gutxi falta zela 8 goleko abantaila zuten.

### Aholkua !!

## Hezetasuna nola aurreikusi

**E**txebizitza askotan dago etengabe hezetasuna. Nahiz eta **erio** horrek akaroen agerpena erraztu, altzairuetan orbanak agerrarazi eta etxekoei arnasketa mailako arazoak sortaraz diezazkiokeen. Suntsitzea espezialistaren eginkizuna den arren, hezetasunak atzeman eta prebenitzea etxeko biztanleen kontua da.

### Nola atzeman arazoa

- Egiatza ezazu kondentsazio arazoa ote den: jarri eragindako horman aluminiozko paper pusketa bat, zinta itsaskorrez. Aluminioaren ageriko azalera lurruna azaltzen bada, kondentsazio arazoa da.

- Hormak, barru zein kanpoaldean,

kresalezko orbanak agertzen baditu, arazoa behetik gorako hezetasuna da, lurretik igotzen dena.


- Ustekabeko hezetasunak ur-bideek nozituriko ihesen ondoriozkoak izaten dira eta horman edo sabaian aureola zentrokide gisa agertzen dira.

### Hasi lanean

- Aurreneko hezetasun sintoma agertu bezain laster inpermeabilizatu azalera.

- Konpondu arraildurak agertu bezain laster, txiki-txikiak badira ere: baliteke horren atzean hodi zartatu bat egotea.

- Hezetasun seinalea lehortu aurretik ez ahalegindu azalera hori inpermeabilizatzen. Piztu gela horretako kalefakzioa eta



itzali gabe eduki hainbat egunetan.

### Nola aurre egin kondentsazioari

- \* Eduki ur beroa 50° behetik.
- \* Prestatu elikagaiak eltzeak estalita.
- \* Lehortu arropa etxetik kanpo.
- \* Eduki itxita gela hezeenetako atek, sukalde eta bainugelakoak, batez ere.

### Eguneko goardiako farmaziak

**Martxoak 9, osteguna**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 10, ostirala**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 11, larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 12, igandea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 13, astelehena**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 14, asteartea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 15, asteazkena**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Martxoak 16, osteguna**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 17, ostirala**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 18, larunbata**  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 19, igandea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,  
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

### Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEAGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
7:55\* / 9:30(T) / 13:15(T) /  
14:35\*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* / 9:00 / 12:45(T) /  
13:45\* / 18:45

LARUNBATETAN  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45 /  
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /  
21:35 (T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /  
21:00 (T)

\* Eskola egunetan. T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

### Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25	15.00	15.20	15.25	15.45
08.00		08.25**		15.40	16.05	16.25	
08.00	08.20	08.25	08.45	16.00	16.20	16.25	16.45
08.40	09.05	09.25		16.40	17.05	17.25	
09.00	09.20	09.30		17.00	17.20	17.25	17.45
09.00	09.20	09.25	09.45	17.40	18.05	18.25	
09.40	10.05	10.25		18.00	18.20	18.30	
10.00	10.20	10.25	10.45	18.00	18.20	18.25	18.45
10.40	11.05	11.25		18.40	19.05	19.25	
11.00	11.20	11.25	11.45	19.00	19.20	19.25**	
11.40	12.05	12.25		19.00	19.20	19.25	19.45
12.00	12.20	12.25**		19.40	20.05	20.25	
12.00	12.20	12.25	12.45	20.00	20.20	20.30	
12.40	13.05	13.25		20.00	20.20	20.25	20.45#
13.00	13.20	13.30		21.00	21.20	21.25	21.45
13.00	13.20	13.25	13.45 #	21.00	21.20	21.25	21.45
13.40	14.05	14.25		22.15	22.35	22.45	23.05
14.00	14.20	14.30**		22.00	22.20	22.25	22.45
14.00	14.20	14.25	14.45	22.30	22.50	23.05	23.15
14.40	15.05	15.25		00:00	00:25	00:45	
15.00	15.20	15.30		02:00	02:25	02:45	
				04:00	04:25	04:45	
				06:00	06:25	06:45	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan \*\*Aiara

Harrematarako: 902.54.32.10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

### Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30	14.30	14.35	15.00	
06.45	07.05	07.10	07.30	14.45	15.05	15.30	
07.15	07.35		08.00	14.45	15.05	15.15	15.40
07.45	08.05		08.30	15.30	15.35	15.55*	
07.45	08.05	08.15	08.40	15.45	16.05	16.30	
08.15	08.35		09.00	15.45	16.05	16.15	16.40
08.45	09.05	09.15	09.40	16.30	16.35	17.00	
	09.30	09.35	10.00*	16.45	17.05	17.30	
09.45	10.05	10.15	10.40	16.45	17.05	17.15	17.40
	10.30	10.35	11.00	17.45	18.05	18.30	
10.45	11.05		11.30	17.45	18.05	18.15	18.40
10.45	11.05	11.15	11.40	18.45	19.05	19.30	
11.45	12.05		12.30	18.45	19.05	19.15	19.40
11.45	12.05	12.15	12.40	19.30	19.35	20.00	
12.45	13.05		13.30	19.45	20.05	20.30	
12.45	13.05	13.15	13.40	20.45	21.05	21.30	
	13.30	13.35	13.55*	20.45	21.05	21.15	21.40
13.45	14.05		14.30	21.15	21.35	21.40	22.00
13.45	14.05	14.15	14.40	21.45	22.05	22.15	22.40
				23.15	23.35	00.00	
				01.15	01.35	02.00	
				03.15	03.35	04.00	
				05.15	05.35	06.00	

\*Aiari dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harrematarako: 902.54.32.10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

### EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10:03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.27#	22.54	23.09

\* Asteagunetan bakarrik

# Ez Da Usurbilen geratzen

Harrematarako: 902.54.32.10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

## Agenda

### Martxoak 9, osteguna

Film laburren proiektzioa. 20:00etan  
Sutegin. Antolatzailea: NOAUA!

### Martxoak 12, igandea

Aitzaga Kultur Elkarrekin antolatu duen  
elkarretaratzea. Eguerdiko 12:00etan,  
Aitzagatik.

### Martxoak 13, astelehena

Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa  
DYAK antolatuta. Arratsaldeko ordutegia,  
19:30etik 21:30era, astelehenetik ostiralera.  
Ikastaroa Udarregi ikastolan egingo da eta  
ikasgaiak euskaraz eskainiko dira. Izena  
emateko: 943 46 46 22.

### Martxoak 15, asteazkena

Santxabeletako Jai Batzordearen bilera  
udalbatza plenoan. 19:30ean.

### Martxoak 17, ostirala

"Erreleboa" antzezlanaren 22:30ean  
Sutegin. Sarrera gonbidapen bidez.  
NOAUA!n jaso behar da gonbidapena.  
Pertsona bakoitzeko, gehienez, lau.

## Soluzioa

	⊛	A	⊛	Z	⊛	G	⊛	A	⊛		
	L	I	B	A	N	O	⊛	P	I		
	⊛	T	E	K	N	I	K	A	K		
⊛	E	⊛	T	O	R	I	⊛	T	E	L	A
A	G	E	R	R	A	L	D	I	A	⊛	Z
⊛	I	T	O	⊛	N	⊛	O	Z	⊛	E	K
E	L	E	P	I	D	E	⊛	E	T	Z	I
⊛	E	N	E	⊛	U	K	A	N	A	⊛	N
A	T	A	L	A	⊛	A	Z	A	R	O	A
⊛	A	K	A	B	E	R	A	K	⊛	A	K

Aitor Egileta

## Musikaren txokoa



### "Jaio, Musika, Hil"

**B**erri Txarrak  
rock taldea  
1994an sortu  
zen, Gorka  
Urbizu eta Aitor  
Goikoetxea



musikarien bigarren talde moduan.  
1997an hasi ziren, dena den, bete-  
betean Berri Txarrak taldeari dedika-  
zio osoa ematen, Mikel Lopez eta  
Aitor Oreja lagunekin batera. Bira  
luze baten ondoren, Aitor Orejak tal-  
dea uztea erabaki zuen. Besteek hiru-

ko moduan jarraitzea deliberatu eta  
buru belarri ekin zioten kantu berriak  
idazteari. Iaz, 'Jaio.Musika.Hil' bos-  
garren lana argitaratu zuten. Disko  
hau Erasoko (Nafarroa) baserri bate-  
an grabatua izan zen, Karlos  
Osinaga soinu hartzaile zutela.  
Nahasketak, berriz, Amerikako  
Estatu Batuetako Kansasen burutu  
ziren, Ed Rose ekoizle ezagunaren  
eskutik.

Sagarrondotik 06 jaialdian disko  
berri honetako kantuak eskainiko  
dituzte.


## Egin kontu

### Aginagako liburua, sada salgai

**A**ginaga, errioko jarduerak eta ber-  
tako hiztegia jada salgai dago hain-  
bat saltokitan. Aginagako Eizan eta  
Usurbilgo Laurok eta Lizardi dendetan.  
NOAUA!ko egoitzan ere hainbat ale  
ditugu salgai. 12 eurotan eskuratu daite-  
ke ikerketa-lan eder hau.

#### Errioko kultura

Errioko jarduerak jasotzeaz gain, agi-  
nagatarren hainbat pasadizo biltzen  
dira. Hala nola, errioko hiztegia ere  
osatu du. Esapide bereziak eta esamol-  
deak biltzeko ahalegina ere egin du  
Jabier Pikabeak. Errioko kultura ezagu-  
tzeko ezinbestekoa.



12 EUROTAN DAGO SALGAI.

#### PILOTA PARTIDEN EMAITZAK:

##### Martxoak 3, Usurbilen

###### Udaberri Txapelketa

Eskuz binaka nagusiak 3. maila  
Andatzpe Peña Pagola 22- Zarautz 0  
(Artola - Iturralde) Zarautzarrak ez ziren agertu.

Eskuz binaka nagusiak 1. maila  
Andatzpe Peña Pagola 22- Ilunpe B 7  
(Santxo - Aranburu) (Azpeitia)

##### Martxoak 4, Usurbilen

###### Eskolarteko Pilota Txapelketa Alebinetan

Bailarako kanporaketa  
Udarregi A 5 - Urumea B 2  
(Iñaki Irazusta, Julen Berradre, Iñigo Ibargoien)

##### Udaberri txapelketa

Eskuz binaka nagusiak 2. maila  
Andatzpe Peña Pagola 6 - Murumendi 22  
(Portu - Olaizola) (Beasain)

Eskuz binaka kadete 1. maila  
Andatzpe Peña Pagola 22- Ataun 5  
(Esnaola - Esnaola)

Eskuz binaka jubenilak 1. maila  
Andatzpe Peña Pagola 16 - Añorga 1 22  
(Etxeberria - Zinkunegi)

##### Martxoak 4, Donostiako Gaskan

Gipuzkoako Trinketeko Txapelketa  
Andatzpe Peña Pagola 40 - Hernani IV 19  
(Urkia - Landa)

#### ASTEBURUKO PARTIDUAK:

##### Martxoak 9, 21:00etan Mallabian

Biharko Izarrak Txapelketa  
Alzugarai - Eraso/ Garcia - Asier Arruti

##### Martxoak 10, 21:00etan Aginagan

Udaberri Txapelketa  
Paleta gizonak 2. maila  
Andatzpe Peña Pagola - Añorga

##### Martxoak 11, 15:30ean Donostiako Gaskan

Andatzpe Peña Pagola - Hernani 1  
(Urkia - Landa)



## ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Las Landas) Home mobile errentan ematen da. Bi logelako dauzka. Hondartzara gertu. Guztiz jantzita, terraza eta jardina. Aste santurako, pazkoa eta udarako. Ekonomikoa. Camping La Civelles 3\*\*\*. 665 734009.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxe erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsaldean 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziduna klase partikularrik ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrik ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zer-baitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

- 4 urteko umea zaintzeko norbait behar dugu. Goizean ikastolara eramateko eta eguardirako. Gida baimena eduki behar du. 675007048
- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarera bat eta sukaldian aritzeko langile bat. 943 37 03 44.
- Arraindegi batean goizez lan egiteko pertsona bat behar da. 616 735 047.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapora@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez bada-kizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta gero-ni pasako ginateteke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Pasa den astean haur bufanda bat galdu da. Urdin iluna eta bi marra txuri ditu. Ikastolatik plazarako bidean galdu da. Bilatu duenak 943370420 telefonora deitu. Mila esker.
- Graduatutako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Faxxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldia. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!ra ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

## Txerrimunik ordainetan !!

## Zorionak Inñi!

M-11 ahaztutzeko moduko eguna da bai, oraingoan gogoratu gara. Zorionak eta muxu handi bat zure Usurbilgo lagunaren partetik.



## Zorionak Igor!

Martxoaren 17an lehen urtebetetze eguna ospatuko duzu. Familia osoaren partez, muxu handi bat!



## Zorionak Nagore!

Martxoaren 7an horrelako irribarrearekin ikusi nahi zaitugu. Zure urtebetetze egunean asko disfrutatu eta nola ez, zerbait hartzera gonbidatuko gaituzu ezta? Muxu handi bat.



## Hi Garikoitz, gaixto

aurpegi horrekin nora hoa? Martxoaren 12an ez haiz horren erraz libratuko. Oraingoan hiri tokatzen zaik ordaintzea eta beraz hire zain egongo gaituk. Zorionak!



Hi haiz hi! Beti lan eta lan. Baina hire egunean jai hartukoek ezta? Martxoaren 11n traje dotorea jantzi eta parrandaz-parranda ibiliko gaituk, merezi duk eta! Zorionak Oskar!



## JAIOTZAK

- Maddi Manterola Angulo  
Otsailaren 23an, Erreka Txiki.

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475  
649435476  
943 363370- 361439

JOSUE  
ARANZAZISTROKI  
IGELTSERITZA  
eta  
PINTURA

Juan Jose enca. 6 Kalezar  
Telf: 606 37 81 05

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

# IKASTOLEN ELKARTEAK

AISIALDIKO BEGIRALE eta ZUZENDARIAK  
behar ditu uztaierako antolatuko diren  
euskal, ingeles eta frantses  
UDALEKUETARAKO



## BEHARREZKOA:

- Euskalduna izatea
- Aisialdian esperientzia izatea
- Ingelesa edo frantsesa menperatzea

[www.bieikastola.net](http://www.bieikastola.net)

94 4354340



Ikastolen Elkartea



# EGIN TXOTX!! sagardotegij garaiain

Txotxetik sagardoa  
zeraitu usadioan



AIALDE  
BERRI

Urtarrilaren 15tik irekita!

Santutenea, Tel.: 943 365 051 - Mobilak: 607 027 751

## LARRE-GAIN

TOLDE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera txotx garaiak  
(Astelehena eta Itxita)



Larre-Gain Baserria - Ereñozu - Hernani  
Tel.: 943 55 58 46 - Mugik: 616 287 867

## ASTIAZARAN SAGARDOTEGIA IRUIN

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.



Urtarrilaren 9-an  
irekiko dugu  
tel.: 943 36 12 29

## ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena ezik.



Oztaran Bailara • URNETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



## SAIZAR

Sagardotegia

Kale Zahar Anzua, 38  
20070 USUREIL  
GIPUZKOA  
Tel.: 943 362 228  
[www.sidrassazar.com](http://www.sidrassazar.com)

## OTEGI

Sagardotegia

Urte guztian irekita Astelehena ezik



Solla onak  
Baserrin  
Zabaleta auzoa  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 365 029

